

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

Andrea

Itsaso Suárez Barquín

Gaur ez dago “egun on” eta muxutxo, ezta esnatzerakoan mutil-lagunari botatzen diodan begirada, lo dagoen bitartean. Gaur goizean begiak ireki ditudanean, Ibon nire gainean zegoen, bere eskuak nire hankartean zituela. Ez da hainbesterako, ez nuen halako edozer egiteko gogorik, baino ez diot garrantzi handirik eman. Batzuetan hala gertatzen da, haren esanetan amets bero bat izatekotan beharrezkoa zaio hori egitea, ulertzen dut. Ulertu behar dut.

...

Film bat ikusten dugun bitartean lagunaren taldeko whatsapp jo eta jo dabil, Ibonen arreta deituz.

–Utzidazu telefonoa momentu bat, eguraldia begiratu nahi dut.

–Eguzki izanen da egun osoan, eta nahiko tenperatura gozoa ere, ez kezkatu.

–Begiratu nahi dudala esan dut.

Nola ez, mugikorra uzten bukatu dut. Ez badiot uzten pentsatuko du bera engainatzen ari naizela edo antzeko zeozer, eta ez dut gaizki sentiarazi nahi.

–Nor da Nerea? Bale bat ematen duen lagun hori?

–Ez ausartu horrela hitz egitera nire lagunei buruz.

–Tira, lasaitu zaitez, broma bat da.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

Broma, baino begietan nabari zaizkio gorroto eta haserrea. Beno, egia esan Nerearekin liskar bat izan zuen duela hilabete batzuk, oraindik egongo da suminduta. Gehiegi esan gabe, filma bukatzera itxaron dut eta ateratzeko prestatzera joan naiz, gaur larunbata da eta duela pila bat ez naizela neskekin ateratzen, bada, gaur ateratzeko eta ondo pasatzeko eguna da.

Makillajea jartzen ari naizela sartu da Ibon.

–Ene jainkoa, nora zoaz horrela jantzita?

–Nire lagunekin geratu naiz gaur gauean- “jadanik dakizu, bada, horretarako eskatu didazu mugikorra”, buruko ahots astun horrek egia dio, baino ez naiz gai ozenean esateko.

–Beraz ez zara horrela niretzat jantzi? Beste mutil batekin zoaz, ezta?

–Tira Ibon badakizu ez dela hala, neskekin gau dibertigarria pasa nahi dut bakarrik.

–Putata bat bezala jantzita? Beharrezkoa da halako zirkoa egitea? Penoso zara Andrea, ez baduzu nirekin egon nahi esadazu, eta oraintxe bertan joango naiz baino halako ninikeriak nirekin ez ausartu egitera.

Zurbil jarri naizela sumatu dut. Normalean norekin nagoen jakin nahi izaten du, baina hau gehiegi da.

Korrika batean komunean sartu naiz negarrez zotinka eta kisketa itxi dut bakarrik, edo salbu, egoteko asmoarekin. Oxigenoa falta zait, ez dago oxigenorik bainuan. Paretan itxi egiten ari direla sumatzen dut, eta argi gehiegi dago begiak irekitzeko. Konturatzerako ispiluaren kontra nago, oraindik ere arnasa hartzeko gai izan gabe eta malkoak boborka begietatik isuriz. Gorrotoa sentitzen dut, baina zaila zait desberdintzea ea atearen beste aldera edo ispiluaren azalera zuzendua dagoen.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

–Ez zaitu maite, hori ez da maitatzea, ez al duzu ikusten?

–Maite nau! Beste inork maitatuko ez nauen bezala, denboraldi txarra dauka hori da guztia.

–Noski ez zaituela maite, begira zelako alproja eginda zauden, zurekin oraindik egotea zorte kolpe galanta da.

–Joan hemendik, alde egin, zure burua salbatu.

–Maite dut, bere beharra dut.

Pareko kristal puska eta biok eztabaidan gaude, askotan uste dugu beste pertsona bat behar dugula eztabaidatzeko, baino gure buruarekin aski zaigu. Askotan latzagoak dira geure buruarekin ditugun horiek. Bat-batean zelako isiltasuna entzuten dut, zelako... Bakea?

...

Ibon niri begira zegoen esnatu naizean, atea irekitzea lortu du nik konortea galdu dudanean.

–Barkaidazu bihotza, ez nuen halakorik esan nahi, badakizu nik asko maite zaitudala eta jeloskor jarri naiz zu hain guapa ikustean. Hitz ematen dizut ez dela horrelako ezer berriz ere gertatuko.

Ixiltasuna izan da nire lagunik onena hurrengo 24 orduetan.

Bizirik gabeko gorputza ematen dut, onartu beharra dago. Gris kolorea hartu dut, bai kanpotik, bai barrutik ere, honekin guztiarekin zer egin jakin ez.

Astelehenean Ibon lanean zegoen bitartean, nire indar guztiaz baliatuz Nerearekin geratu naiz. Betiko kafetegian elkartu gara. Ondo ezagutzen nau; kafearen usain gozoa, bertan elkartu diren ezezagunen elkarrizketa deszifraezinen soinua, besarkatzen zaituen epeltasuna... zeharo lasaitu egiten nau kafetegiko giroak, eta Nereak badaki, gehien ezagutzen nauen pertsona baita.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

–Andrea –kezkaturik ematen zuen, benetan kezkaturik–, nola zaude azkenaldian?

–Beti bezala, zer dela-eta galdetzen duzu? –urduritasunak taupadak eztarrian sumatzen hastea eragin zuen.

–Hara Andrea, larunbat gauean geratzeko irrika bizian zeunden eta bat-batean lbonekin planak zenituen? Ezinezkoa da. Zer esan zizun? Zu kontrolatzeko asmoa du ala?

–Zer? Noski ezetz, maite egiten nau eta bakarrik neskak egogo ginenez, zihur aski mozkor, kezkatu zen.

–Badakizu, aspaldi berarekin izan nuen liskarra, nahiz eta zuk inoiz jakin izan, honengatik izan zen. Ubeldura madarikatu horiekin agertu zinen egun hori ezin dut burutik kendu.- kafea edateko pausa bat egin du, eta zihur aski oroitzapen horrek sorrarazi dien gehiegizko tristura eta haserreari eusteko.- Duela gehiegi tratatzen zaitu bere jabetzako objektu bat bezala. Badakit ez dela erraza baina, mesedez, entzun nazazu, pertsona horrek ez zaitu maite. Benetan maite zaituen norbait merezi duzu Andrea, zorientzua izatea merezi duzu.

Bihotza txikitzen ari zaidala sumatzen dut, bularra guztiz hustu balitzait bezala. Azken bi urteetan gertatutako guztia perspektibaz ikusteak hotzikara hutsa sentiarazten dit. Beldurra eta erromantzea nahastea ezinezkoa baziruditzen ere, hala egin dut. Eta lbonen asunto guztia gradualki joan den heinean, gauza guztietan lazgarriena da, honen ostean zer gertatuko zaidan pentsatzea. Nolatan egon naiz hain itsu? Benetan itsu negoen, edo zerbait egiteko beldurra momentu oro sentitzen nuen hori baino okerragoa iruditzen zitzaidan?

Malkoak nire begietatik ateratzeko zorian zeudela Nereak azken hitzak esan ditu:

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

–Hartu gauzak, eta joan. Andrea, mesedez, zure buruari aprezio pixka bat badiozu egidazu kasu.

Inork ez dizu kontatzen horrelako zerbaitetaz konturatzea min fisikoa baino hamaika aldiz okerreagoa dela, baina hala da. Duela denbora bat gehien maite zenuen pertsona gorroto bazaitu bezala tratatzen zaitu, eta maitasuna zela pentsatzen zenuen, eta gutxi balitz bezala gainera maitasun falta hori zure buruari ere islatzen diozu. Merezi duzuna da. Merezi dudana da?

Etxera korrika bizian joan gara Nerearen kotxean, Ibon momentu horietan ailegatuko zen beldurrez. Gauza guziak hartu, eta alde egin dugu. Zorionez bere etxean egongo naiz pisu bat aurkitu arte eta bakarrik egoteko gai naizen arte.

Momentu honetan pentsatuko duzu istorio hau ondo bukatzen duen desamodio istorioa dela. Ez nahastu, ondo bukatu da, baino amodio istorioa orain hasi da, nire burua da orain maite dudana pertsona.